# ARRIGORRIAGAKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN UDAL ARAUTEGIA.

## ZIOEN AZALPENA.

Botere publikoei dagokie, jendearen nortasuna libreki garatzearren, gauzak erraztea herritarrek politikan, ekonomian, kulturan eta gizarte-eginkizunetan esku har dezaten, besteak beste, hori delako politika-ordenaren eta bake sozialaren funtsa. Herritarrek afera publikoetan zuzenean edo ordezkarien bidez esku hartzeko duten eskubidea arlo guztietan sustatu eta adierazi behar da, hots, bai norbanakoei bai talde gisa jarduten dutenei dagokienez. Ildo horri jarraiki, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 69. artikuluan xedatutakoaren arabera, toki-korporazioek herritar guztiek udalerriko bizitzan parte har dezaten errazteko bideak ezarriko dituzte. Halaber, Lege horretako 18.1 artikuluan herritarrek udal-kudeaketan parte hartzeko eskubidea dutela jaso da.

Hirigintzaren arloari dagokionez, eta herritarren partaidetzarako mekanismoei bultzada ematea helburu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 109. artikuluan xedatu da hirigintza-plangintza behin betiko onartzeko eskumena duten udalerri guztiek Hirigintza Plangintzako Aholku Batzorde bat eratu beharko dutela. Batzorde horrek, lehen adierazitako helburuak lortzeko eginahalak egiteaz gain, tokiko erakundeari lagunduko dio hirigintza antolatzeko baliabide nagusiak formulatzen eta onartzen, batez ere, Plan Orokorreko zehaztapenei dagokienez. Horrez gainera, herritarrek hirigintzaren gaineko informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatuko da, udaleko hirigintza-plangintza lurralde-antolamenduko eta arloko antolamenduko tresnekin koherentea dela ziurtatzearen bidez. Aipatutako Legeko 110. artikuluak, bestalde, dio Aholku Kontseilua eratzeko eta haren oinarrizko ezaugarriak definitzeko Udal bakoitzak arautegi bat onartu beharko duela. Neurri hori hain zuzen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko abuztuaren 3ko 105/2008 Dekretuan zehaztu zen, laugarren xedapen gehigarrian.

Arautegi honen bidez, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen sorrera eta funtzionamendua arautu nahi dira. Kide anitzeko aholku organoa izango da,

# REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE ARRIGORRIAGA.

## EXPOSICION DE MOTIVOS.

Corresponde a los poderes públicos facilitar la participación de toda la ciudadanía en la vida política, económica, cultural y social como instrumento que propicie el libre desarrollo de la personalidad que es el fundamento del orden político y de la paz social. El derecho de la ciudadanía a participar en los asuntos públicos bien directamente bien por medio de representantes, debe promoverse y expresarse en todos los ámbitos, tanto en referencia a las personas individualmente consideradas, como respecto a los grupos de diversa naturaleza que la integran. En ese sentido, el artículo 69 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local dispone que las Corporaciones locales facilitaran la participación de todos los ciudadanos en la vida local. Igualmente el artículo 18.1 de la ley de Bases recoge el derecho de los vecinos a participar en la gestión municipal.

En materia urbanística, la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en el marco del impulso de los mecanismos de participación ciudadana, establece en su artículo 109 la obligatoriedad de todos los municipios con competencias para la aprobación definitiva del planeamiento urbanístico de constitución de un Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico. Este Consejo, además de perseguir dar respuesta a los objetivos enunciados, tiene por objeto coadyuvar a la entidad local en la formulación y aprobación de sus principales instrumentos de ordenación estructural urbanística y, más específicamente, en relación con las determinaciones del Plan General. Ello se suma al derecho a la información urbanística a través del aseguramiento de la integridad y de la coherencia del planeamiento urbanístico municipal respecto a los instrumentos de ordenación territorial y sectorial. El artículo 110 de la citada Ley remite la constitución y definición de las características básicas del citado Consejo a la aprobación de un Reglamento Municipal, la cual es desarrollada por el decreto 105/2008 de 3 de agosto de medidas urgentes en desarrollo de la ley en su disposición adicional cuarta.

El presente Reglamento propone regular la creación y funcionamiento del Consejo Asesor de Planeamiento del municipio como un órgano

eta haren zereginak izango dira gizarteak hirigintza-plangintza estrategikoan izan behar duen parte-hartzea bideratzea eta udalerriaren garapen iraunkorrari laguntzea. Halaber, arautegiaren bidez, beste alderdi batzuk ere zehazten dira, hala nola, Aholku Kontseiluaren oinarrizko egitura, zereginak eta araubide juridikoa, betiere, kide anitzeko organoaren izaera eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 22.2 artikuluan aurreikusitakoak kontuan hartuta.

consultivo y colegiado que permita articular la participación social en la planificación urbanística estratégica y contribuir al impulso del desarrollo sostenible en el municipio. En el Reglamento se determinan también aspectos tales como la estructura básica, funciones y régimen jurídico del Consejo Asesor de Planeamiento, atendiendo a su naturaleza de órgano colegiado de los previstos en el artículo 22 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y Procedimiento Administrativo Común.

Horiek horrela, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 110. artikuluan xedatutakoari jarraituz eta Udal Plangintzako Aholku Batzordearen osaera, funtzionamendua, sorrera eta desegitea zehazte aldera, Arrigorriagako Udalak jarraian jasotzen den arautegia onartu du, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 4. artikuluak aitortzen dion araudi eta autoantolaketa ahalmena baliatuz.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco y al objeto de determinar la composición, el funcionamiento, la constitución y la disolución del "Consejo Asesor del Planeamiento Municipal", el Ayuntamiento de Arrigorriaga, en virtud de la potestad reglamentaria y de autoorganización que le otorga el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se aprueba el presente Reglamento.

## ARRIGORRIAGAKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN UDAL ARAUTEGIA.

## REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE ARRIGORRIAGA

### HASIERAKO TITULUA.-

### UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA SORTZEA.

### TÍTULO PRELIMINAR.

### DE LA CONSTITUCIÓN DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL.

1. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1. Arrigorriagako Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea sortu da. Aholku Batzorde hori hirigintza-plangintzaren arloko informazio, eztabaida eta adostasunerako espazio gisa eratu da, eta espazio horretan Udala, gizarte-eragileak, eragile ekonomikoak eta ingurumen-eragileak bilduko dira.
2. Udal Plangintzako Aholku Batzordea Arrigorriagako Udaleko parte-hartze organo osagarria da, herritarrek, oro har, eta elkarteek eta herritarren kolektiboek udalerriko gobernu-organoen erabakietan lagundu ahal izatea helburu duena.

Artículo 1.- Disposiciones generales.

1. Se crea el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Arrigorriaga. El Consejo Asesor constituye un espacio de información, debate, consenso del Ayuntamiento, de los agentes sociales, económicos y ambientales al planeamiento urbanístico
2. El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico es un órgano complementario de participación del Ayuntamiento de Arrigorriaga con la finalidad de que la ciudadanía en general y las Asociaciones y Colectivos Ciudadanos puedan cooperar a la conformación de las decisiones de los Órganos de Gobierno del Municipio**.**

2. artikulua.- Atxikitzea.

Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea hirigintza-gaietan eskumena duen udal-arloari edo arlo baliokideren bati atxikitzen zaio.

Artículo 2.-Adscripción.

El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico se adscribe al Área de Gobierno municipal competente en materia de Urbanismo o área equivalente**.**

3. artikulua.- Izaera juridikoa.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean arautzen diren kide anitzetako organoetako bat da Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea.

Artículo 3.-Naturaleza jurídica.

El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico se configura como órgano colegiado de los regulados en la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común**.**

## I. TITULUA.

## UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN ZEREGINAK, OSAERA ETA TXOSTENAK.

## TÍTULO I.

## DE LAS FUNCIONES, LA COMPOSICIÓN Y LA EMISION DE INFORMES DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

### I. KAPITULUA.

### ZEREGINAK, XEDEAK ETA TXOSTENAK EGITEA

### CAPÍTULO I.

### DE LAS FUNCIONES, FINES Y EMISIÓN DE INFORMES.

4. artikulua.- Zereginak eta xedeak.

1. Egiturazko hirigintza-antolamenduari buruz Udalean aztertzen diren zehaztapenen gaineko kontsulta, txostena eta proposamena egitea dagokio Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeari
2. Zehazki, zeregin hauek aurrera eramateaz arduratuko da Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea:

   a) Udalak kontuan har ditzan egiturazko hirigintza-antolamenduari lotuta aurkezten diren ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta alternatibak aztertzea, dagozkien txostenak eginez.

   b) Herritarren parte-hartzea bideratzea.

   c) Hainbat elkarte eta erakunderen lankidetza eta konpromisoa sustatzea eta bultzatzea proposatutako egiturazko hirigintza-antolamenduko zehaztapenetan.

3. Udaleko gobernu-organoek gomendio gisa aintzatetsi beharko dituzte Hirigintza Plangintzako Aholku Kontseiluaren erabakiak, gomendioak, alternatibak edo proposamenak (Lurzoruari buruzko Legeko 109.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz). Hala, bada, udaleko gobernu-organoek erantzun arrazoitua eman beharko diete onartzen ez dituzten edo aldatzen dituzten gomendio guztiei.

Artículo 4.-Funciones y fines.

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico tendrá como objeto la consulta, el informe y la propuesta en relación con cualquiera de las determinaciones de ordenación estructural urbanística sometidas a consideración por parte del Ayuntamiento**.**
2. En particular, corresponderá al Consejo Asesor de Planeamiento **U**rbanístico el desarrollo de las siguientes funciones:

   a) Estudio de aquellas iniciativas, sugerencias, propuestas y alternativas relativas a las determinaciones de ordenación estructural urbanística propuestas para su consideración al Ayuntamiento, mediante la emisión de los correspondientes informes.

   b) Cauce de participación ciudadana.

   c) Promoción e impulso de la colaboración y el compromiso de las diversas asociaciones y entidades en las determinaciones de ordenación estructural urbanística propuestas.

3. Las decisiones, recomendaciones, alternativas o propuestas del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico tendrán la consideración de recomendaciones (de acuerdo con el artículo 109.3 de la Ley del suelo) para los órganos de gobierno municipal y estos tendrán que dar una respuesta fundamentada a todas las recomendaciones que sean desechadas o modificadas.

5. artikulua.- Txostenak egitea.

1. Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeak Udalak lantzen edo ezartzen dituen egiturazko hirigintza-antolamenduari buruzko tresna guztien berri izan ahalko du. Horrez gain, egituraren antolamenduan eragina duten plangintza-tresnak lehen aldiz formulatzeko, tresna horiek guztiz edo zati batean berraztertzeko, edo tresna horietan aldaketa puntualak egiteko espedienteei buruzko txostenak egingo ditu, kasu guztietan eta nahitaez.
2. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egituraren antolamendua lehen aldiz formulatzeko edo guztiz edo zati batean berraztertzeko espedienteetan, nahitaezkoa izango da plangintza horien behin-behineko onespenaren edukiari buruzko txostena egitea.
3. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egituraren antolamenduan aldaketa puntuala egiteko espedienteetan, bestalde, nahitaezkoa izango da behin-behineko onespenari dagokion dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea. Aurrerakin-dokumentua baldin badago, plangintza horien behin-behineko onespenerako dokumentuari buruzko txostena ordezkatu ahal izango du aurrerakin-dokumentu horren edukiari buruzko txostenak.
4. Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeak, bere parte-hartzea derrigorrezkoa den espedienteetan, txostena hilabeteko epean egin beharko du, artikulu honetako aurreko zenbakietan aipatutako izapidetze-dokumentua aztertzen duen batzordearen saioa egiten den unetik zenbatzen hasita.
5. Halaber, Aholku Batzordeak, kideen gehiengoak hala adostuta, egiturazko hirigintza-antolamenduko beste plan batzuen espedienteen berri izan ahalko du. Kasu horretan ere txostena espedientea behin-behinean onartu baino lehen egin beharko du.
6. Edonola ere, aipatutako txostena ezarritako gehienezko epeen barruan egiten ez bada, espedientea onartzeaz arduratzen diren udal-organoek espedientea izapidetzeko prozedurarekin jarraitzeko ahalmena izango dute eta gerta liteke epez kanpo aurkeztutako txostenen edukia kontuan ez hartzea espedientea behin betiko onartzeko saioan.

Artículo 5.-Emisión de informes.

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico podrá conocer de cuantos instrumentos de ordenación estructural urbanística elabore o establezca el Ayuntamiento e informará, en todo caso y con carácter preceptivo, en los expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual de instrumentos de planeamiento que afecten a la ordenación estructural.
2. En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto el contenido de la aprobación provisional de los citados planeamientos.
3. En los expedientes referentes a la modificación puntual de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del documento de aprobación provisional. En el caso de existir documento de Avance, el informe sobre el contenido del mismo podrá sustituir el informe sobre el contenido de la aprobación provisional de los citados planeamientos.
4. El Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico, en los expedientes en que su intervención sea preceptiva, deberá emitir su informe en el plazo máximo de un mes a partir de la celebración de la sesión del consejo en el que se trate el documento de trámite a que se refieren los números anteriores del presente artículo.
5. Así mismo, el Consejo Asesor, cuando así lo acuerden la mayoría absoluta de sus miembros, podrá recabar con carácter general el conocimiento de todos los expedientes referidos a otros planes de ordenación estructural urbanística. En este supuesto, el plazo para la emisión de informe será también anterior a la aprobación provisional del expediente.
6. En todo caso, la no emisión del citado informe en los plazos máximos establecidos habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación a proseguir con la tramitación del expediente pudiendo no ser tenido en cuenta en el acto de aprobación definitiva el contenido de los informes que se hubieran emitido extemporáneamente.

## II. KAPITULUA.

### HIRIGINTZA PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA.

6. artikulua.- Osaera.

Honako kide hauek osatuko dute Plangintzako Aholku Batzordea:

a) Lehendakaria:
   - Alkatea izango da. Dena den, zinegotziren baten esku utz dezake lehendakaritzaren jarduna.

b) Lehendakariordeak:
   - Garapen iraunkorraren arloan edo antzekoren batean eskumena duen udal-saileko titularra.
   - Herritarren parte-hartzearen arloan eskumena duen udal-saileko titularra edo, bestela, gobernu-taldeak izendatu beharreko zinegotzi bat.

c) Idazkaria:
   - Udaleko idazkaria edo udaleko goi-teknikari bat izango da. Idazkariak, lehendakariaren zuzendaritzapean, Aholku Batzordeari lagundu eta hura aholkatu beharko du.

d) Batzordekideak:
   - Udaleko talde politikoen ordezkari bana
   - Auzo-elkarteetatik, betekizunak betetzen duten elkarte adina ordezkari. Elkarte horiek gutxienez 2 urteko jarduera eta 30 bazkide izan behar dituzte.
   - Udalerrian jarduten duten elkarte ekologista eta naturazaleen ordezkari bat.
   - Herriko merkatari-elkarteen ordezkari bat.
   - Udalerrian dauden enpresen 2 ordezkari.
   - Herriko kultur elkarteen 2 ordezkari.
   - Herriko kirol elkarteen 2 ordezkari.
   - Herriko emakume-elkarteen 2 ordezkari bat.
   - Hezkuntza-elkarteen (GEak) 2 ordezkari.
   - Gazte-elkarteen ordezkari bat.
   - Adinekoen elkarteen 2 ordezkari.

7. artikulua.- Batzordekideen ordezkaritza.

1. Alkateak Aholku Batzordeko batzordekideak izendatuko ditu, talde politiko bakoitzak edo

## CAPÍTULO II.

### COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO.

Artículo 6.- Composición.

El Consejo Asesor de Planeamiento estará compuesto por los siguientes miembros:

a) Presidente:
   - Alcalde del Ayuntamiento, quien podrá ser sustituido por un concejal en quien delegue.

b) Vicepresidentes:
   - Titular del área de Gobierno competente en materia de desarrollo sostenible o similar.
   - Titular del área de Gobierno competente en materia de Participación Ciudadana o en su defecto un concejal o concejala a designar por el equipo de gobierno.

c) Secretario:
   - El Secretario/a municipal o un Técnico superior del mismo. Al Secretario le corresponderá, bajo la dirección del Presidente, la asistencia y asesoramiento al Consejo Asesor.

d) Vocales titulares:
   - Por el ayuntamiento: Un miembro de cada uno de los grupos políticos municipales.
   - Por asociaciones de vecinos legalmente constituidas, con al menos 2 años de actividad y siempre que tengan una afiliación de al menos de 30 miembros por parte de la entidad: tantos representantes como asociaciones que cumplan los requisitos.
   - Por asociaciones ecologistas, ambientalistas con actuación en el municipio: 1 representante
   - Por asociaciones de comerciantes locales: 1 representante
   - Empresas ubicadas en el municipio: 2 representantes
   - Por las asociaciones locales culturales: 2 representantes
   - Por las asociaciones locales deportivas: 2 representantes
   - Por las Asociaciones de mujeres: 2 representantes
   - Por asociaciones educativas (AMPAs): 2 representantes
   - Por asociaciones juveniles: 1 representante
   - Por asociaciones de personas mayores: 2 representantes

Artículo 7.- Representación de los vocales titulares.

1. El Alcalde designará a los vocales titulares miembros del Consejo Asesor atendiendo a las

aurreko artikuluan zerrendatutako entitateek egindako proposamenei jarraiki. Alkateak Aholku Batzordeko batzordekideak izendatuko ditu, talde politiko bakoitzak edo aurreko artikuluan zerrendatutako entitateek egindako proposamenei jarraiki.

2. Elkarteek Elkarteen Udal Erregistroan erregistratuta egon beharko dute Batzordean ordezkariak izendatu ahal izateko.
3. Lehendakariak, lehendakariordeetako batek edo batzordekideen erdiak eskatuta, honakoek —batzordekide izan gabe— hartu ahal izango dute parte Aholku Batzordeko bileretan, hitzarekin baina botorik gabe:
   - Hirigintza-planak idazteaz arduratzen diren teknikariak.
   - Hirigintzaren eta ingurumenaren arloan adituak diren sona handiko pertsonak.

propuestas que por parte de cada grupo político o entidad de los comprendidos en el artículo precedente sean formuladas. En el supuesto de proponerse más de un representante para cada vocalía por parte de las asociaciones, la resolución se adoptará por la Alcaldía previa consulta con los grupos municipales y atendiendo a criterios de representatividad y oportunidad.

2. Las entidades asociativas deberán estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones para poder designar representantes en el Consejo.
3. A propuesta del Presidente, de cualquiera de los Vicepresidentes o de la mitad de los vocales miembros, podrán también participar en las reuniones del Consejo aun no siendo miembros del mismo, con voz pero sin voto:
   - Las personas técnicas encargadas de la redacción de los planes urbanísticos.
   - Personas expertas y de reconocido prestigio tanto en materia de Urbanismo y Medio Ambiente.

8. artikulua.-Batzordekideak izendatzea eta kargutik kentzea.

1. Alkateak izendatuko ditu Aholku Batzordeko kideak, dekretu bidez. Horretarako, izendapen-proposamena egingo du, aurreko ataletan ezarritakoari jarraituz.
2. Batzordekideak izendatzeko, proposatutako pertsonek aldez aurretik bere onespena eman beharko dute.
3. Edonola ere, zinegotzi diren batzordekideek, Udal Korporazioaren agintaldia bukatzen denean utzi beharko dute kargua.
4. Gainerako batzordekideen karguak lau urte iraungo du. Dena den, honako kasuetan ere kargua utzi ahal izango dute:
   - Berariaz uko egitean edo hiltzean.
   - Epai irmo batek kargu publikoa betetzeko ahalmenik edo gaitasunik ez dutela adierazi duenean.
   - Aholku Batzordeko kide beren karguak aginduta direnean, kargu hori galtzen dutenean utziko diote batzordekide izateari.
   - Proposatu zituen antolakundeak kargutik mugiarazten dituenean.
5. Hutsik geratzen diren postuak izendatzeko erabili zen modu berean beteko dira.

Artículo 8.-Nombramiento y cese de los vocales titulares del consejo.

1. Los vocales del Consejo Asesor serán nombrados por el Alcalde, mediante decreto, efectuándose la propuesta de designación según lo establecido en los apartados siguientes.
2. El nombramiento de los vocales titulares requerirá la aceptación previa por parte de éstos.
3. Los vocales titulares que ostenten la condición de concejales cesarán, en todo caso, cuando expire el mandato de la Corporación Municipal.
4. La duración del cargo del resto de los vocales titulares será de cuatro años, no obstante podrán ser cesados, también, por las siguientes causas:
   - Por renuncia expresa o fallecimiento.
   - Por declaración de incapacidad o inhabilitación para el desempeño de cargo público por sentencia judicial firme.
   - En caso de los miembros que lo sean por razón de su cargo, cesarán cuando pierdan esa condición.
   - Remoción por la organización proponente.
5. Las vacantes se proveerán, en la misma forma establecida para su nombramiento.

9. artikulua.- Ordainsariak.

Batzordekideek ez dute beren zereginak betetzeagatik ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

Artículo 9.-Remuneraciones.

Los miembros del Consejo Asesor no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

**II. TITULUA.**

**ANTOLAKUNTZA EGITURA.**

**I. KAPITULUA.**

**BATZORDEAREN ANTOLAKUNTZA.**

10. artikulua.- Organoak.

Hauek dira Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzionamendu-organoak:

a) Lehendakariak eta lehendakariordeak.
b) Udalbatza.

**II. KAPITULUA.**

**LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEAK.**

11. artikulua.- Aholku Batzordearen lehendakaria.

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen lehendakari kargua alkateari dagokio. Lehendakaria ez badago, edo hark berariaz eskuordetu baditu, lehendakariordeek eramango dituzte aurrera hari dagozkion zereginak.

2. Lehendakariari honako zeregin hauek dagozkio:
   a) Batzordearen eskumenen alorrean, indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatzea.
   b) Arautegi honek Batzordeari egotzi dizkion xedeak betetzen direla bermatzea.
   c) Aholku Batzordearen ordezkari gisa jardutea erakunde, entitate eta beste batzordeen aurrean.
   d) Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdiak erabakitzea eta gai-zerrenda finkatzea.
   e) Dagokion udal-organoari aurkeztea Batzordeko osoko bilkurak adostutako eskakizun, errekerimendu eta jarduera guztiak.
   f) Jorratu beharreko gaiak ikusita, lehendakariak berak, lehendakariordeetako batek edo batzordekideen erdiak egoki irizten dituzten pertsonak —hitzarekin baina botorik gabe— gonbidatzea Batzordearen osoko bilkurara.
   g) Batzordearen lehendakari karguari berezko zaizkion zereginak aurrera eramatea.
   h) Egotz dakizkiokeen gainerako guztiak.

**TÍTULO II.**

**DE LA ESTRUCTURA ORGANIZATIVA**

**CAPÍTULO I.**

**DE LA ORGANIZACIÓN DEL CONSEJO.**

Artículo 10.- Órganos.

Los órganos de funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal son:

a) La Presidencia y la vicepresidencia.
b) El Pleno.

**CAPÍTULO II.**

**DE LA PRESIDENCIA Y DE LA VICEPRESIDENCIA.**

Artículo 11.-Presidencia del Consejo Asesor.

1. La Presidencia del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal corresponderá a la Alcaldía de la Corporación municipal. En caso de ausencia de la Presidencia, o por delegación expresa de la misma, ésta será ejercida por la Vicepresidencia.

2. Corresponde a la Presidencia las funciones de:
   a) Garantizar el cumplimiento de la legislación vigente en el ámbito de las competencias del Consejo.
   b) Asegurar el cumplimiento de los fines que al Consejo asigne este Reglamento.
   c) Ejercer la representación del órgano asesor en instituciones, entidades y comisiones.
   d) Acordar las convocatorias de las extraordinarias y fijar las sesiones ordinarias y orden del día.
   e) Canalizar ante el órgano municipal correspondiente todas las peticiones, requerimientos y actuaciones aprobadas por el Pleno del Consejo.
   f) Invitar al Pleno del Consejo, con voz pero sin voto, a las personas que estime oportuno él, cualquiera de los Vicepresidentes o la mitad de los vocales, en razón de los temas a tratar.
   g) Ejercer las funciones inherentes a la condición de la Presidencia del Consejo.
   h) Cuantas otras pudieran serle atribuidas.

3. Lehendakariak honako eskumen hauek izango ditu Batzordearen bileretan:
   a) Bilkuretako buru izatea, eztabaidetan moderatzaile gisa aritzea, bilkurak irauten duen denboran ordena jartzea eta, egokia izanez gero, bilkura bertan behera uztea horretarako arrazoiak izanez gero
   b) Botazio batean berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoaren bidez erabakitzea.

3. En las sesiones del Consejo serán competencia de la Presidencia:
   a) Presidir las sesiones, moderar los debates, mantener el orden en el transcurso de la sesión y, en su caso, suspenderlas atendiendo a causas justificadas.
   b) Decidir, mediante el voto de calidad, en caso de que se produzca un empate en una votación.

12. artikulua.- Aholku Batzordearen lehendakariordeak.

1. Lehendakariordea garapen iraunkorraren saileko edo antzeko saileko buru den zinegotzia izango da.
2. Funtsezko zeregina lehendakaria ordeztea izango da kargua betetzeko ez dagoenean, kargu hori hutsik dagoenean edo gaixotasuna tartean denean.
3. 2. lehendakariordea herritarren parte-hartze saileko buru den zinegotzia izango da edo, bestela, gobernu-taldeak izendatu beharreko zinegotzi bat.
4. Funtsezko zeregina 1. lehendakariordea ordeztea izango da kargua betetzeko ez dagoenean, kargu hori hutsik dagoenean edo gaixotasuna tartean denean.

Artículo 12.- Vicepresidencia del consejo asesor.

1. La Vicepresidencia 1ª corresponderá al Concejal responsable de desarrollo sostenible o área similar.
2. La misión fundamental será la sustitución de la Presidencia en los casos de ausencia en el ejercicio de su cargo, vacante o enfermedad.
3. La Vicepresidencia 2ª corresponderá al Concejal responsable de Participación ciudadana o en su defecto a un concejal o concejala a designar por el equipo de gobierno.
4. La misión fundamental será la sustitución del Vicepresidente 1º en los casos de ausencia en el ejercicio de su cargo, vacante o enfermedad.

## III. KAPITULUA -

## OSOKO BILKURA.

13. artikulua.- Aholku Batzordearen osoko bilkura.

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen osoko bilkura arautegi honetako 6. artikuluan aipatutako kideek eta batzordeko idazkariak osatuko dute; azken horrek hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez du botorik izango. Alkate-Lehendakaria izango da osoko bilkuraren burua.
2. Batzordeko erabaki-organo gorena osoko bilkura da, eta honako zeregin hauek dagozkio:
   a) Batzordearen lan-programa prestatzea eta jardueren lehentasuna erabakitzea.
   b) Deialdiko gai guztiei buruzko iritzia ematea.
   c) Hala badagokio, aurreko osoko bilkurari dagokion akta onartzea.
   d) Udalerriaren egiturazko antolamenduaren plangintza formulatzeko prozesuaren barruan egiten edo ezartzen diren azterlan, programa, jarraibide eta jarduera-ildo guztiak eskuratzea eta haien berri izatea, horiek guztiak egiten laguntze aldera.

## CAPÍTULO III.

## DEL PLENO.

Artículo 13.- Pleno del Consejo Asesor.

1. El Pleno del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal está integrado por todos los miembros a que se hace referencia en el artículo 6 del presente Reglamento así como por la Secretaría del Consejo, que asistirá a las sesiones del Pleno con voz pero sin voto, y es presidido por la Alcaldía-Presidencia.
2. El Pleno es el máximo órgano de decisión del Consejo, y le corresponden las siguientes atribuciones:
   a) Elaborar el programa de trabajo del Consejo y establecer un orden de prioridad en sus actuaciones.
   b) Pronunciarse sobre todos los temas por los cuales se le haya convocado.
   c) Aprobar, si procede, el Acta de la Sesión anterior al Pleno.
   d) Recabar y conocer cuántos estudios, programas, directrices y líneas de actuación se elaboren o establezcan en la formulación del planeamiento de ordenación estructural del municipio para colaborar en su elaboración.

e) Arautegi honetako 5. artikuluan aipatutako txostenak egitea.
f) Haren eskumenen arloan udaleko gobernu-organoek eskatutako azterlanak egitea.
g) Edonola ere, txostena egitea plan orokorraren idazketa teknikoa egiten hasten denean.
h) Egoki iritziz gero, egiturazkoa ez den hirigintza-antolamenduari buruzko edozein dokumenturen gaineko informazioa eskatzea.

**IV. KAPITULUA.**

**IDAZKARIA.**

14. artikulua.- Aholku Batzordearen idazkaria.

Idazkariak, lehendakaritzaren zuzendaritzapean, honako zeregin hauek eramango ditu aurrera:

a) Osoko bilkuraren deialdiak bidaltzea, gai-zerrenda eta aurreko bilkurari dagokion akta erantsiz.
b) Batzordearen osoko bilkuretan parte hartzea, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe eta haien aktak idaztea eta lehendakariarekin batera sinatzea.
c) Artxibatze eta erregistro zereginak aurrera eramatea, bai eta bere karguari lotutako gainerako zeregin guztiak ere.

**III. TITULUA**

**FUNTZIONAMENDUKO ARAUBIDEA**

**I. KAPITULUA**

**OSOKO BILKURA.**

15. artikulua.- Bilkurak.

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordea ohiko bilkuretan bilduko da Batzordearen txostena nahitaezkoa duten plangintza-espedienteak onartu baino lehen, betiere, arautegi honetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ohiko bilkura hori egun batean edo hainbat egunez egin ahal izango da, eta aipatutako txostena jaulkitzearekin amaituko da.
2. Dena den, ohiko bilkurez gain, Batzordeak ohiz kanpoko bilkurak egin ditzake premiazko kasuak daudenean, edo hala komeni denean. Ohiz kanpoko bilkura horiek lehendakariak berak deituko ditu hilabeteko epea bete baino lehenago, bere ekimenez edo batzordekideen heren batek gutxienez eskatuta.

e) Emitir los informes a los que hace referencia el artículo 5 del presente Reglamento.
f) Realizar los estudios que en el ámbito de sus competencias le sean requeridos por los Órganos de Gobierno Municipal.
g) En todo caso, informar una vez iniciada la redacción técnica del plan general.
h) Solicitar si lo estima conveniente, información sobre cualquier documento urbanístico de ordenación no estructural.

**CAPÍTULO IV.**

**DE LA SECRETARÍA.**

Artículo 14.- Secretaría del Consejo Asesor.

La Secretaría del Consejo Asesor bajo la dirección de la Presidencia del mismo ejercerá las siguientes funciones:

a) Cursar las convocatorias del Pleno, acompañando a las mismas el orden del día y el acta correspondiente a la sesión anterior.
b) Asistir, con voz pero sin voto, a las sesiones del pleno del consejo y elevar acta de las mismas y firmarlas junto con la Presidencia.
c) Desempeñar las funciones de archivo y registro así como, todas las inherentes a su condición.

**TÍTULO III**

**DEL REGIMEN DE FUNCIONAMIENTO**

**CAPÍTULO I**

**DEL PLENO.**

Artículo 15.- Sesiones.

1. El Consejo Asesor de Planeamiento se reunirá en sesiones de carácter ordinario con carácter previo al acto de aprobación municipal que deba ser objeto de informe según lo establecido en el artículo 5 del presente Reglamento. Dicha sesión ordinaria podrá tener lugar en uno o varios días y concluirá con la emisión del informe citado.
2. No obstante, el Consejo podrá celebrar sesiones extraordinarias por razones de urgencia o de conveniencia, que serán convocadas en un plazo no superior a un mes por la Presidencia a iniciativa propia o a solicitud de, al menos, la tercera parte de los miembros del Consejo.

16. artikulua.- Bertaratze-quoruma.

Bilkurak balioa izan dezan, lehenengo deialdian, lehendakariak eta idazkariak egon beharko dute, edo, bestela, beren ordezkoak, eta gutxienez kideen erdiek. Quorum hori ez baldin bada lortzen, bigarren deialdi bat egongo da, ordu erdi beranduago; bigarren deialdi honetan bilkurak balioa izan dezan nahikoa izango da lehendakariaren eta idazkariaren presentzia, edo beren ordezkoena, eta gutxienez beste bi kiderena.

17. artikulua.- Bilkuren deialdia.

1. Ohiko bilkuren deialdia lehendakariak egingo du, Batzordearen txostena nahitaezkoa duen hirigintza-espedientea onartu baino lehen, arautegi honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Edonola ere, ezohiko bilkuren deialdia lehendakariak berak egingo du, bere ekimenez edo Batzordearen heren batek eskatuta. Kasu horretan, bilkura 30 eguneko epean egingo da, bilkura egiteko eskaera egin zen egunetik zenbatzen hasita. Deialdiarekin bat etorriz, jorratu beharreko gaien zerrenda agertuko da

**II. KAPITULUA**.

**EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK HARTZEA.**

18. artikulua.- Eztabaidak.

Batzordearen lehendakariak bilkurak zuzenduko ditu, eztabaidak antolatuko ditu, eta bilkuren martxa ona bermatzeko beharrezkoak diren neurri egokiak finkatuko ditu.

19. artikulua.- Erabakiak hartzea.

1. Aholku Batzordearen erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak bere kalitatezko botoa baliatuko du. Edonola ere, boto partikularrak ezarri ahal izango dira, eta erabakiarekin bat ez datozen aldeek planteatutako eragozpenak jasoarazi ahal izango dira.
2. Hartutako erabakiak idazkariak idatzitako akta batean jasoko dira. Akta hori aztertu beharreko hirigintza-espedientearen parte izango da. Erabakiei hirigintza-antolamenduko proposamen

Artículo 16.- Quórum de asistencia.

Para la válida celebración de las sesiones será necesaria en 1ª convocatoria la presencia de la Presidencia o Secretaría o en su caso, de quienes les sustituyan, y de la mitad, al menos, de sus miembros. Si dicho quórum no se alcanzase, habrá una segunda convocatoria media hora después, siendo suficiente para la válida celebración de la sesión, la presencia de la Presidencia y Secretaría o en su caso, de quienes les sustituyan, y de, al menos, dos de sus miembros.

Artículo 17.- Convocatoria de sesiones.

1. La convocatoria de las sesiones ordinarias será realizada por el Presidente antes del acto de aprobación municipal del expediente urbanístico que deba ser informado, según lo establecido en el artículo 5 de este Reglamento.

2. La convocatoria de la sesión extraordinaria le corresponde, en todo caso, a la Presidencia del Consejo bien a iniciativa propia bien a solicitud de la tercera parte de los miembros del Consejo. En este caso, la sesión se celebrará en el plazo de 30 días desde la fecha de solicitud. La convocatoria incluirá el orden del día comprensivo de los asuntos a tratar.

**CAPITULO II.**

**DE LAS DELIBERACIONES Y ADOPCION DE ACUERDOS.**

Artículo 18.- Deliberaciones.

La Presidencia del Consejo dirigirá las sesiones, ordenará los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden de las reuniones.

Artículo 19.- Adopción de acuerdos.

1. Los acuerdos del Consejo Asesor se adoptarán por mayoría simple de los asistentes. En caso de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad. En todo caso, se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia de las objeciones planteadas por las partes discrepantes

2. Los acuerdos adoptados serán integrados en un acta que se elaborará desde la Secretaría y que formará parte del expediente urbanístico objeto de análisis. Estos acuerdos podrán ser

zehatzak edo ordezko aukera zehatzak gaineratu ahal izango zaizkie. Haatik, proposamen edo ordezko aukera horiek ez dira Udalarentzat lotesleak izango.

acompañados con propuestas o alternativas concretas de ordenación estructural urbanística de carácter no vinculante para el Ayuntamiento.

**III. KAPITULUA.**

**BARNE ARAUAK.**

20. artikulua.- Funtzionamenduko barne-arauak.

Aholku Batzordeak funtzionamenduko barne-arauak ezarri ahal izango ditu, betiere, arautegi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

21. artikulua.- Biltzeko lekua eta aktak.

Aholku Batzordearen bilkurak udal-aretoetan egingo dira, eta idazkariak bilkura horietako bakoitzaren akta egingo du. Akta hori batzordekideei helaraziko zaie, eta egiten den hurrengo bilkuran onartu beharko da.

22. artikulua.- Bitartekoak atxikitzea.

Hirigintza-plangintzaren arloan eskumena duen udal-sailari atxikiko zaio Aholku Batzordea, eta, horrenbestez, udal-sail horrek jarriko ditu batzordearen funtzionamendu egokirako beharrezko bitartekoak.

**IV. KAPITULUA.**

**BATZORDEA DESEGITEA.**

23.artikulua.- Desegitea.

Batzordea osoko bilkuraren erabaki bidez desegingo da, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoarekin bat etorriz.

**LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.**

Arautegi honen seigarren artikuluan zerrendatutako partaidetza-tituluren bat duten elkarteek eta pertsonek Udal Plangintzako Aholku Batzordean sartzea eskatu ahalko dute —hala nahi badute—, betiere arautegi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogei egun baliodunen barruan. Alkatetzak eskaera horiei erantzungo die, eta Aholku Batzordea eratzeko bilkurara deitu ditu onartutakoak.

Xede horretarako deituko den eratze-bilkuraren bidez eratuko da modu formalean Udal Plangintzako Aholku Batzordea.

**CAPITULO III.**

**DE LAS NORMAS INTERNAS.**

Artículo 20.- Normas internas de funcionamiento.

El Consejo Asesor podrá, con sujeción a lo establecido en el presente Reglamento, establecer sus propias normas internas de funcionamiento.

Artículo 21.- Lugar y actas.

Las sesiones del Consejo Asesor se celebrará en dependencias del Ayuntamiento y de cada una de ellas se extenderá acta por la Secretaría, que será remitida a sus miembros y será sometida a aprobación en la siguiente sesión que se celebre.

Artículo 22.- Adscripción de medios.

El Área de Gobierno competente en materia de Planeamiento Urbanístico, al que queda adscrito el Consejo Asesor, le facilitará los medios necesarios para su correcto funcionamiento.

**CAPÍTULO IV.**

**DE LA DISOLUCIÓN DEL CONSEJO.**

Artículo 23.- Disolución.

El Consejo se disolverá por acuerdo plenario, conforme al ordenamiento jurídico vigente.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA.**

Dentro de los 20 días hábiles al de la publicación de este Reglamento en el Boletín Oficial de Bizkaia, las asociaciones y personas que así lo deseen, y se correspondan con algún título de participante enumerado en el artículo sexto, podrán solicitar su inclusión en el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal. La Alcaldía responderá dichas solicitudes y convocara a los/as admitidos/as a la sesión de constitución del Consejo.

El consejo asesor de planeamiento Municipal quedara constituido formalmente mediante la sesión de constitución que se convocara a tal efecto.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**

Araudi honetan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluan xedatutakoaren araberako funtzionamendua eta jarduna izango du Udal Plangintzako Aholku Batzordeak. Gainerako xedapenetan, berriz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezarri duenari eta Tokiko Entitateen Antolamenduko, Funtzionamenduko eta Araubide Juridikoko Arautegiak (2.568/1986 Errege Dekretua) xedatu duenari jarraituko zaio.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.**

En lo no previsto expresamente en esta Reglamento, el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico se regirá en cuanto a su funcionamiento y actuación por lo dispuesto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común. En el resto de disposiciones, se estará supletoriamente a lo establecido la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2568/1986).

**LEHEN AZKEN XEDAPENA.**

Arautegi hau bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, biharamunetik zenbatzen hasita, 15 egun baliodunera sartuko da indarrean.

**DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA.**

El presente Reglamento entrara en vigor a los 15 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de su publicación de su texto integro en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**BIGARREN AZKEN XEDAPENA.**

Arautegi honek bere indarra galduko du udalbatzak hura aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen duenean, edo Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean Udal Plangintzako Aholku Batzordeari eragiten dion aldaketaren bat egiten denean.

**DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA**

Este Reglamento perderá su vigencia cuando el pleno del Ayuntamiento acuerde su modificación o derogación o cuando se produzca una modificación en la ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo del País Vasco que afecte al Consejo Asesor del Planeamiento municipal.

- **AOSOKO BILKURAN ONARTUA /** PROBACION EN PLENO**: 18/07/2008**
  **BAOn ARGITARATUA-194.zk – 2008/10/09 /** PUBLICACION EN B.O.B.- núm. – 194 – 09/10/2008
- **ALDAKETA OSOKO BILKURAN ONARTUA /** APROBADA LA MODIFICACION EN PLENO: **29/10/2010**
  **BAOn ARGITARATUA- 191.zk – 2010/10/04 -** PUBLICACION EN B.O.B.- núm. 191 – 04/10/2010
- **ALDAKETA OSOKO BILKURAN ONARTUA /** APROBADA LA MODIFICACION EN PLENO: **26/10/2017**
  **BAOn ARGITARATUA- 13.zk – 2018/01/18 -** PUBLICACION EN B.O.B.- núm. 13 – 18/01/2018